

Etika, proiektuak aztertzean eta ebaluatzean

Isabel López-Abadía (CEISH)
Hizlaria: Francisco de Abajo



 Koadernoak

Etika, proiektuak aztertzean eta ebaluatzean

Etika, proiektuak aztertzean eta ebaluatzean

CEID/IIEBri, GIEBri, AOEBri eta ABIEBri zuzendutako mintegia

Hizlaria: FRANCISCO DE ABAJO

ISABEL LÓPEZ-ABADÍA (GIEB) prestatutako eta hizlariak
orraztutako dokumentua



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Leioa, 2010eko uztailaren 2a

Francisco José de Abajo Iglesias: Medikuntzako doktorea Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, Farmakologi Klinikoko espezialista, Bioetikako magisterra Unibertsitate Konplutensean (1992) eta Osasun Publikoko masterra Harvard Unibertsitatean (1998). Madrilgo Ramón y Cajal Ospitalearen Ikerketako Etika Batzordean lan egin du 1995. urteaz geroztik. Espainiako Medikamentu Agentziaren Farmakoepidemiologia eta Farmakozaintza Ataleko burua izan da (Osasun eta Kontsumo Ministerioa). Merkaturatutako medikamentuen segurtasuna aztertzeaz arduratzen da. Bioetikan, arreta berezia eskaini dio Ikerketa Klinikoaren Etikari, eta gai horri buruzko zenbait artikulu argitaratu ditu Espainiako eta Iberoamerikako aldizkarietan.

Isabel-López-Abadía: Medikuntzako doktorea. Zuzenbidean lizentziaduna. Lege eta Auzitegi Medikuntzako irakasle titularra. Medikuntza eta Odontologia Fakultateko Medikuntza eta Kirurgia Berezitasunak Saileko zuzendaria. UPV/EHUko Ikerketa Errektoreordetzako GIEBko kidea.

IIEB koadernoak

Ikerketa Errektoreordetza

koordinatzailea: Mabel Marijuán
Dolores Ruiz (Arg./Ed.)

CEID@ehu.es

Lan honek Creative Commons Reconocimiento-NoComercial-CompartirIrgual 3.0 Unported baimena dauka.

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISBN: 978-84-9860-608-9

Lege gordailua: BI-339 2012

Fotokonposizioa: Rali, S.A.

Costa, 12-14 - 48010 Bilbao

Aurkibidea

1. Aurretiazko gaiak	9
2. Proiektuaren ebaluazioaren unea	10
2.1. Dokumentua baliozkotzat jotzea.....	10
2.2. Ebaluatzaileak hautatzea.....	11
2.3. Ebaluatzaileen funtzioa.....	12
2.4. Batzordearen gogoeta: zer eta nola ebaluatzen du?.....	13
3. Erabakiak hartzea. Gardentasuna, konfidentziasuna eta presioak.....	20
4. Ebaluazio-prozesuaren amaiera. Idatzizko txostena	21
5. Egindako beste galdera batzuk.....	22
5.1. Proiektuen jarraipena	22
5.2. Erakunde-erantzukizuna. Gatazken batzordea	23
5.3. Batzordea ezagutaraztea	24
5.4. Prozeduren eta proiektuen publizitatea.....	24
5.5. Karguak berritzea.....	25
6. Laburpena/ondorioak	26

1. Aurretiako gaiak

Lan honetan, batzordeen jardunaren izaera praktikoko eta aplikazio zuzeneko gai nagusiak laburbilduko ditut.

Mintegiaren planteamendua hau izan zen: batzordeetako kideek eguneroko beharrea zailtasun handienak sorrarazten dituzten alderdien gainean informazioa trukatzeko eta aditu-aholkua emateko eskatu zioten Francisco de Abajo hizlariari.

Galderai egin ahala erantzun zenez, zaila izan da haiek gaika biltzea. Azkenean, proiektu bat dagokion batzordera iristen denetik haren ebaluazioa amaitu arteko hurrenkera kronologikoaren arabera bildu ditut galderak, eta ez bileran izan zuten hurrenkeraren arabera.

Ez dira «proiektu baten ibilbideko» urrats guztiak ageri, bileran aipatutako arazoekin lotutakoak bakarrik baizik, eta amaieran ipini ditut «proiektu baten ebaluazioaren hurrenkera kronologikoa» betetzen ez dutenak.

Honako hau da eskema:

- Proiektuaren ebaluazioaren unea.
- Aipatutako arazoa.
- Erantzuna (hizlariak proposatua).

Proiektua vs. prozedura: *proiektu* hitza erabili dut, bereizketarik gabe, biak aipatzeko (baita ikerketa-ildoak ere); izan ere, mintegian aipatutako moduan, batzuetan ez dago oso argi bien arteko bereizketa. Zehazki prozedura bati erreferentzia egitean bakarrik erabili dut hitz espezifikoko hori.

Ebaluatzaileak: proiektua batzordeak erabakia har dezan aurkeztu aurretik, bi batzordekideek sakontasunez aztertu behar dute, eta bi kide horiei buruz aritzeko erabili dut *ebaluatzaile* hitza.

Hizlaria: Francisco de Abajo doktorea. *Hizlari* hitza ageri den aldiro, hari buruz ari naiz.

2. Proiektuaren ebaluazioaren unea

2.1. Dokumentua baliozkotzat jotzea

(1) *Galdera:*

Zer egin behar dugu ebaluatzaileek idazkerako, ortografiako, gramatikako eta abarreko akats larriak dauzkaten proiektuak jasotzen badituzte eta haiek interpretatzea zaila eta balioestea are zailagoa bada (halako lanek, gainera, aurrez honako hau pentsarazten diete ebaluatzaileei nahiz batzordekideei: idazten ez dakienak ziur asko gutxienezko zorrotasunez ikertzen ere ez du jakingo)?

Erantzuna:

Dokumentua baliozkotzat jotzeko aurretiko urrats bat ezar daiteke (hori dagoeneko egiten dute beste lan-talde batzuetan); horri esker, proiektua ez litzateke batzordera iritsi ere egingo, eta bueltan bidaliko litzaiokie igorleari, modu ulergarrian berridazteko.

Hau da, lehen urratsaren ostean (Idazkaritza Teknikoak eskaera jasotzen du; beharrezko dokumentu guztiak aurkeztu direla egiaztatzen du, eta erregistroan sartzen du), dokumentuaren «balioztatzea» egingo genuke: edukia gutxienez irakurtzeko modukoa eta koherentea dela egiaztatuko genuke.

Idazkaritza Teknikoak ezingo luke lan hori bere gain hartu, proiektu guztiak irakurri beharko bailituzke (eta badu nahikoa lan...); beraz, funtzio hori norik beteko lukeen erabaki beharko genuke: ebaluatzaileak izendatzen dituen pertsonak edo ebaluatzaileek...; betiere, batzordean erabakia hartzeko fasea baino lehen.

2.2. Ebaluatzaileak hautatzea

(2) *Galdera:*

Zer irizpide erabili behar dugu ebaluatzaileei proiektuak banatzeko? Nola ekidin ditzakegu gerta daitezkeen interes-gatazkak?

Erantzuna:

Puntu honetan, hiru batzordeak bat datoz, neurri handi batean, eta hizlaria ere bai, zorionez.

Irizpideak **ausazkoa** behar du izan; normalean, batzordekideen eta lehendakariaren zerrendako hurrenkerari jarraitzen diogu, eta proiektu berri bakoitza zerrendako hurrengoari esleitzen diogu. Irizpide hori espezializazioaren, gehiegizko lan-kargaren eta inpartzialtasunaren araberaz haztatzen dugu.

- **Espezializazioa:** kasu oso zehatzetan, batzordekide bat gai jakin batean aditua bada, proiektuaren zirrikituak ulertzea eta haiek batzordeari azaltzea errazagoa izango zaiola irizten diogu. (adibidez, genetikari buruzko proiektu bat, taldean genetista bat baldin badago).
- **Gehiegizko lan-kargak** lotura zuzena du aurreko puntuarekin. Proiektu gehienak soziologiako gaietara buruzkoak badira eta taldean espezialista bat badago, ezin dizkiogu denak hari esleitu.
- **Inpartzialtasuna:** puntu hau funtsezkoa da zerbaiten egokitasunari buruzko erabakia hartzen duen eta baimena, finantziarioak eta abar emateko edo ukatzeko ahalmena duen edozein organismoan. Gure kasuan, alderdi hori arduraz handiz errespetatzen saiatzen gara.
 - Batzordekide batek (edo hurbileko norbaitek) proiektu bat aurkeztuz gero ebaluatzeko, ez du jakingo nork ebaluatuko duen, eta bilera utzi beharko du bere kasuari buruz eztabaidatzean.
 - Proiektua batzordekide baten saileko norbaitek aurkeztzen badu, batzordekide hori ez da ebaluatzailea izango, baina parte hartuko du batzordearen eztabaidetan. Fakultate bereko kideak ez izendatzen saiatzen gara, baina zenbait kasutan espezializazioaren irizpideari ematen diogu lehentasuna (batzordearen araberaz).

Bi arau horiek hiru batzordeetan betetzen dira, baina hizlariak urrats bat gehiago ematea proposatu du, gardentasun handiagoa lortzeko eta inpartzialtasunari buruzko zalantza guztiak ekiditeko:

- Batzordekide bakoitzak **idatzizko aitorpen bat** egin behar luke, aldian behin berriztagarria (6 hilabetean behin iradoki zuen), eta bertan adierazi behar luke UPV/EHUko zer ikertzaileekin duen harremana eta, hortaz, noren proiektua ezin duen ebaluatu. Irizpideztat **abstentzioan eta uko egitean** erabiltzen direnak hartu ditut: 4. mailarainoko ahaidetasuna, interes zuzena edo zeharkakoa proiektuan, adiskidetasun estua, ageriko areriotasuna...
- Era berean, batzordeen **konfidentzialtasun-konpromisoa** idatziz jasotzea eta batzordekide guztiak sinatzea iradoki zuen. Bi dokumentu horiek bi helburu izango lituzkete:
 - Batzordekideei ikusaraztea oso garrantzitsua dela ikertzaileekin gai horietan ez nahastea, gure ingurunean ia denok elkar ezagutzen dugun arren.
 - Ikertzaileek batzordekideei presioa egitea eragozteak; izan ere, honako hau erantzuteko aukera izango lukete: «*Ni ez naute izendatuko zure proiektua ebaluatzeko, gure adiskidetasunak eragozten baitu. Gainera, ezin dizut informaziorik eman; paper bat sinarazi ere egin digute...*».

Laburbilduz: espezializazioaren, lan-kargaren eta inpartzialtasunaren arabera haztatutako hautaketa-irizpide sekuentziala. Konfidentzialtasuneko eta inpartzialtasuneko hitzarmenak sinatzea komeni da.

2.3. Ebaluatzaileen funtzioa

(3) *Galdera:*

Zer funtzio betetzen dute ebaluatzaileek? Batzordekide guztiak dokumentu berdinak jasotzen badituzte, zer alde dago ebaluatzaileen lanaren eta gainerako kideen lanaren artean?

Izenak «ebalatu» egin behar dutela pentsaraz badiezaguke ere, ebaluatzaileen zeregina honako hau da: **proiektuaren azterketa sako-**

na egitea eta batzordeari aurkeztea. Hau da, benetan ebaluatzen duena batzordea da, hura da erabakitzeko ahalmena duen organoa.

Prozesua honako hau da:

- Aurreko puntuan aipatutako irizpideen arabera ebaluatzaileak hautatu ostean, horiek proiektuaren azterketa sakon bat egiten dute, eta batzordeari aurkezten diote, haren gainean eztabaida dezan. Haien funtsezko betebeharra aipagarritzat dauzkaten arazo etikoak antzematea da, batzordean eztabaidatzeko. Horrek ez du eragozten, ordea, gainerako batzordekideek eztabaidarako arazo gehigarriak antzematea eta proposatzea.
- Gainerako batzordekideek posta elektronikoz jasotzen dute proiektuaren memoriaren kopia bana, bilera egin aurretik irakurtzeko.
- Kasua ebaluatzaileek aurkezten diote batzordeari; bertan eztabaidatu egiten da, eta erabakiak hartzen dira, kide anitzen artean.

Hizlariak adierazitakoaren arabera, egokiena ebaluatzaileek informazio osagarria jasotzea da. IIEBk jasotako proiektuaren memoriak gain (hori denei igortzen zaie), proiektuaren informazio osoa jasoko lukete (finantziario-erakundeei bidaltzen zaie dokumentazioa edo antzekoa), sakonago aztertu ahal izateko.

2.4. Batzordearen gogoeta: zer eta nola ebaluatzen du?

2.4.1. *Gai metodologikoen ebaluazioa*

Honako arazo hau aipatu zuten:

Zer puntutaraino ebaluatu behar ditu etika-batzorde batek alderdi zientifikoak eta metodologikoak? Ez luke alderdi etikoak eta legalak baliostera mugatu behar? Ez dago alderdi horiek kontrolatzeko beste mekanismorik? Batzordeak badu nahikoa ezagutza eta prestakuntza alderdi zientifikoei, proiektuaren diseinuari, estatistikari eta abarri buruzko irizpen bat emateko? Badauzka nahikoa datu mota horretako ebaluazio bat egin ahal izateko?

Mintegian zeuden gehienek argi daukate ez litzatekeela halakorik egin behar eta horretarako badaudela beste instantzia batzuk, edo ez dute nahikoa segurtasun alderdi horiek aztertzeko. Aitzitik, zalantzarik

gabe onartzen dute batzordeak arduratu behar duela legearekin eta arauarekin lotutako alderdiak eta alderdi etikoak (batzordeari izena ematen diote) betearazteaz.

Galdera horrek zenbait alderdi hartzen dituenez barne, zatitu egin daiteke, azterketa errazteko.

(4) *Galdera:*

Etika-batzorde baten lana da alderdi zientifiko eta metodologikoak ebaluatzea?

Erantzuna: **BAI, zalantzarik gabe.** Batzordeak alderdi metodologikoak balioetsi behar ditu. **Zientifikoki edo metodologikoki akastuna den proiektu oro onartezina da etikoki.**

Oinarritzko hiru arrazoi daude batzordeak ebaluazio hori egin behar izateko:

- LEGEZ BEHARTUTA DAGO (Ikerketa Biomedikoari buruzko uztailaren 3ko 14/2007 Legea), gizakiekin egiten diren ikerketetan. Analogiaz, gainerako kasuetara ere aplika daiteke. Beraz, batzordeak ebaluazio metodologikoa egiteko betebeharrak etikoa eta legala dauka.
- Batzordeak EZAGUTU EGIN BEHAR DITU oinarritzko gertaerak (zertan datza, nola egingo dute proiektua...), gutxienezko zorrotzasunaz emateko iritzia alderdi etikoen gainean.
- **METODOEK** berek **ARAZO ETIKOAK** izan ditzakete. Azterketa hori oinarritzko eta lehentasuneko alderdia da, etikaren ikuspegitik ebaluatzean. Kalterik ez egiteko edo justiziako printzipio etikoarekin lotuta dago. Zenbait adibide eman zituen:
 - Ikerketan metodo edo tratamendu hutsalak erabiltzeak justiziaren oinarritzko printzipio etikoa urratzen du (baliabide horiek beste zerbaitetarako erabili ahal ziren); oinarritzko maila etiko horri kalte egiten diote, halaber, erabilgarritasunik eta aplikagarritasunik gabeko emaitzak ematen dituen gaizki diseinatutako proiektu batek edo lagin-hautaketa diskriminatzaile batek, besteak beste.

Zientifikoki edo metodologikoki akastuna den proiektu oro onartezina da etikoki; hortaz, batzorde etikoak nahitaez egin behar du ebaluazio zientifikoa.

- Arrisku txikiagoko bitarteko eraginkorrak izanda ere prozedura inbaditzaileak edo partaideentzako arriskutsuak erabiltzen dituen proiektu bat okerra da metodologikoki, eta onartezina, etikoki (kalterik ez egiteko printzipioa). Horrelakoak dira, halaber, behar baino pertsona, animalia edo talde ahul gehiagori eragozpenak edo kalteak dakartzkieten prozedurak erabiltzen dituzten proiektuak ere. Guzti-guztiek ondorio etiko garrantzitsuak dauzkate, batzordeak landu beharrekoak.

Hori guztia dela-eta, **ebaluazio zientifikoa nahitaezkoa da. Ez da beharrezkoa sakontasun edo zehaztasun handiz egitea, baina egin behar da, BAI.**

(5) Galdera:

Etikaren ikuspegitik metodologia oso garrantzitsua dela eta ebaluatu egin behar dela aintzat hartuta, hona hemen hurrengo galdera: nola eta nork ebaluatu behar du?

Batzordeak egiaztatu egin behar du proiektua metodologikoki zuzena dela, baina horrek ez du esan nahi nahitaez hura arduratuko denik ebaluazioa egiteaz.

Bi aukera ditu:

- Metodologia ebaluatzea.
- Proiektuak erakunde aditu batek alderdi horren gainean egindako ebaluazioa gainditu duela bermatzea.

Praktikan, egoera hauek aurki ditzakegu:

- Erakunde ebaluatzailearen baten azterketa gainditu duten proiektuak.
 - Proiektu finantzatuak.
 - Proiektu ez-finantzatuak.
- Beste kontrolik izan EZ duten eta izango ez duten proiektuak.

Erakunde ebaluatzailearen baten azterketa gainditu duten proiektuak.

- Finantzaketa eskatu duten proiektuak. Halako proiektuek laguntzen deialdia egin duen erakundearen ebaluazioa gainditu behar dute, eta, metodologiaren ikuspegitik zuzenak izan ezean, ez dute

finantzaketarik lortuko. Askotan, baina, gugana iristean oraindik ez dituzte ebaluatu, aurrebaldintza gisa etika-batzordeak onar ditzala eskatzen baitiete. Hau izango litzateke hurrenkera zuzena:

- lehenengo, laguntzen deialdia egin duen erakundearen aditu-batzordearen ebaluazio zientifikoa gainditu behar luke;
- gero, aurreko batzordearen aldeko ebaluazioa jaso ostean, gure etika-batzordeak aztertuko luke (dagoeneko ez luke alderdi metodologikoa ebaluatu behar);
- azkenik, IIEBren onspena jasota, lehenengo erakundera itzuliko litzateke, eta haren finantzaketa jaso ahal izango luke.

Aurreko hori ez bada bideragarria, erakunde ebaluatzailearen ebaluazio positiboak baldintza dezake batzordearen irizpena.

- Beste batzorde batzuek aztertutako proiektuak. Batzorde aditu batek metodologia onartu badu, irizpena ontzat emango dugu, eta arauekin nahiz etikarekin lotutako beste alderdi batzuk ebaluatuko ditugu (aurreko erakundeak egin ez badu). Zenbait kasutan, proiektuaren zati bat bakarrik egingo dute unibertsitatean, eta fase batzuk ospitaleetan edo beste zentro batzuetan egingo dituzte. Kasu horietan, unibertsitatean egingo den zatia ebaluatuko dugu, normalean beste batzorde batzuen azterketak gainditu baitituzte ospitale eta ikerketa-zentroetan. Gure batzordeak bermatu egin behar du hala izan dela, eta ikertzaileari gainerako batzordeen irizpenak aurkezteko eskatu behar dio; erakunde aditu batek egin dituela iriziz gero, onetsi egingo ditu.

Beste kontrolik izan EZ duten eta izango ez duten proiektuak.

Finantzaketarik jasotzen ez duten proiektuak, irakaskuntza-praktikakoak, animaliekin egiten diren prozedurazkoak... Gure batzordeak bakarrik aztertuko dituen proiektuak: batzordeak berak balioetsi behar ditu alderdi metodologikoak.

(6) *Galdera:*

Batzordeak metodologia ebaluatu behar duenean, zer sakontasunez egin behar du ebaluazioa?

Metodologian akats zakarrak egiten ez direla egiaztatzeko adinako sakontasunaz. Ez da beharrezkoa xehetasun txikiak ere azter-

tzea, ez baita diseinuaren kalitate gorena ebaluatu behar; oinarrizko elementuak onargarriak direla bermatu behar du batzordeak.

(7) *Galdera:*

Askotan, batzordeak ezjakintasuna edo segurtasunik eza sentitzen du ebaluazioa egiteko funtsezkoak diren datuei dagokienez.

Batzordean ez badago proiektuaren alderdi metodologikoa (edo irizpena emateko garrantzizko beste edozein alderdi) ebaluatzeko nahikoa gaitasun duen inor, zer egin behar dugu?

Funtsezko hiru mekanismo daude:

- Batzordeek ebaluatu ohi diren gaietan (haien artean, alderdi metodologikoa) **aditua den kide bat** daukate, edo eduki behar dute, **gutxienez**.
- Maiz samar ager daitezkeen **gai zailak lantzeko organo aholkulariak** sor daitezke (aholkularitza juridikoa). Hori dagoeneko badaukagu GIEBrako. Beharrezkotzat joz gero, beste gai eta talde batzuetarako ere gauza bera egin liteke.
- Hori gertakari berezia edo ezohikoa bada, proiektu jakin batek zailtasun berezi bat badu eta batzordeak ez badu bere burua hura balioesteko gai ikusten, **aditu bat ekar daiteke ad hoc** proiektu horretarako, kasu zehatz horretan aholkua eman dezan.

Jarraibide hau proposatu da: ebaluatzaileek zailtasunak edukiz gero proiektua ulertzeko edo interpretatzeko, batzordearen bileran ebaluazioa atzeratzea proposatu behar dute, adituen iritzia edo aholkularitza espezifikoak eskatu ahal izateko. Ikertzaileari jakinarazi egingo zaio ebaluazioa atzeratu egingo dela arrazoi horrengatik, baldin eta ezin bada aurreikusi proiektuak esleitzean.

2.4.2 *Ikertzailearen agerraldia batzordearen aurrean*

(8) *Galdera:*

Baliagarria izango litzateke ikertzaileak berak aurkeztea proiektua batzordeari?

Horrek onurak eta eragozpenak dauzka. Eragozpenik bistakoena bai INk bai batzordeak pasatu beharreko «estutasuna» da (hau ez zuen hiz-

lariak aipatu, ez geniolako astirik eman, baina **eragozpenen** zerrenda honekin gutxi gorabehera sentimendu orokorra adieraziko dudalakoan nago):

- Guztiok ezagutzen dugu elkar, neurri handiagoan ala txikiagoan (komunitate txikia gara), eta guztiok sentituko ginateke deseroso (batik bat ikertzailea).
- «Azterketa» baten giroa sortzen da: ikertzaileak proiektua babeste-ko gaitasunaren arabera gaindituko du edo ez.
- Erabakia kide anitzek hartu behar badugu ere, errazagoa da ebaluazio negatiboa ematea ez badugu buruz burukorik izan ikertzailearekin.

Nolanahi ere, hizlariak ikertzaile nagusiak (IN) batzordearen aurrean hitz egitearen aldeko arrazoibide argia egin zuen. Gauzak behar bezala eginez gero, abantailak eragozpenak baino askoz handiagoak dira. Hark ere ez zuen gogoko INren agerraldia, baina azken urteetan iritziz aldatu du; abantailak nahiz metodoa azaldu zituen.

Abantailak

- Lana ondo egiten duten INek (gehienek) ez dute inolako eragozpenik hura azaltzeko; aitzitik, eskertu egiten dute ahoz azaltzen uztea, idatzizko laburpenean ez baitakite noraino eman behar dituzten azalpenak.
- Era berean, sistema horrek gaizki egituratutako, oinarri nahikorik gabeko edo gaizki prestatutako proiektuak antzematea ahalbidetzen du, ez baita nahikoa gutxi gorabeherako laburpen orokor bat egitea.
- Batzordeak zuzenean argi ditzake zalantzak eta eska ditzake argibideak; horrela, errazago ulertuko ditu ebaluazioan erabiliko dituen datuak.
- INk aurkeztuko duen proiektua irakurri/ikasi behar du, eta ideiak ordenan jarri behar ditu aurkezpenerako; beraz, ez du lana beste inoren esku utziko.
- Prozesuaren ondorioz, INk gogoetatu egin behar du proiektuko zer puntu izan daitezkeen gatazkatsuak batzordeari aurkeztu aurretik prestatzean edo zenbait alderdiri buruzko galderak erantzutean.

- Ikertzaileei etika-batzordeak eta haien funtzionamendua ezagutaraztea errazten du; gardentasunari mesede egiten dio, eta INk gai horretan duen prestakuntza hobetzen du (batzordearen funtsezko zeregina ere bada).

Metodoa

Batzordeak ikertzailea deitzen du:

- Proiektuaren laburpena aurkezten du 10 bat minutuan.
- Gero, beste 5 minutuan, haren ustez gatazkak sorraraz ditzaketen edo zailak diren puntuak identifikatzen ditu.
- Azkenik, batzordekideek galderak egiten dizkiete, eta argibideak eskatzen dizkiete.

Agerraldian izan beharreko portaerari buruzko funtsezko bi puntu ahaztezin daude:

- Une oro **adeitsuak izan behar dugu** ikertzailearekin. Aurkeztutako proiektua ona ala txarra izan, normalean urduritasunez eta ziurgabetasunez betetako une bat da.
- Inoiz ez dugu INrekin eztabaidatu behar; galderak egingo dizkiogu, eta argibideak eskatu, baina **INOIZ EZ** dugu haren aurrean **eztabaidatuko**. Iritziak batzordekideen artean bakarrik eta ateak itxita elkartrukatuko ditugu.

3. Erabakiak hartzea. Gardentasuna, konfidentzialtasuna eta presioak

(9) *Galdera:*

Ebaluatzaileek eta beste batzordekide batzuk erabakitzean duten pisua.

Ebaluatzaileek proiektua sakonago aztertzen dute, eta arazoak NABARMENTZEN eta azaltzen dituzte, besterik ez.

Batzordeak EZTABAIDATZEN du arazo horiei buruz, eta hark ematen du epaia. **Pisua kide anitzeko organoak hartzen du beregain, ez ebaluatzaileek edo lehendakariak.**

Garrantzitsua da gardentasunez jardutea, faboritismoko edo partzialtasuneko susmoak ekiditeko, baita presioak saihesteko ere:

- Batzordekideek ezagunak izan behar dute, gardentasunaren mesedetan (gure kasuan, hala dira).
- Proiektu bakoitzaren ebaluatzaileen izena informazio konfidentziala izango da, ez ditzaten presioak jasan.
- INren agerraldiak jardueren gardentasunari mesede egingo lioke.
- Aurreko puntuetan aipatutako konfidentzialtasun- eta inpartzialtasun-hitzarmenek (abstenitzeko/uko egiteko arrazoiak, interresdunen gaineko erabakietan ez parte hartzea arrazoi horiek direla-eta, etab.), batzordekideek presioak jasatea ekidindo lukete.

4. Ebaluazio-prozesuaren amaiera. Idatzizko txostena

(10) *Galdera:*

Zer jarri behar dugu ikertzaileak jasoko duen txostenean? Zenbaterainoko zehaztasuna izan behar du?

Argia eta ulergarria izateaz gain, txostenak **behar bezain xehatua** izan behar du (zuzenean aldekoak direnak izan ezik), ikertzaileak zehatz-mehatz jakin dezan zer erantzun behar duen eta proiektuak eragozpenak non dituen. Zenbat eta ordenatuagoa eta egituratuagoa izan, orduan eta hobeto.

Normalean, txosten idatzi hori nahikoa izaten da ikertzaileak zehatz-mehatz jakiteko zer erantzun behar duen. Txosten idatzi bat nahikoa ez dela eta aurrez aurreko azalpen bat beharrezkoa dela iritziz gero, batzordekide bat bidal daiteke ikertzailearekin hitz egitera. Hori, ezohiko egoera izateaz gain, ez da oso komenigarria, nolabaiteko distantzia mantendu behar baitugu batzordearen eta ikertzaileen artean. Hobe da txostena luzea, argitzailea eta zehatza izatea.

Hizlariak aipatu duenez, haren txostenak sakonak dira, ez eskemak; xehetasun osoz idazten ditu, eta gutxienez oinarritzko bi zati dituzte:

- **Azalpenak:** ikertzaileak banan-banan erantzun behar die atal honetan ageri diren galdera guztiei: adib., zergatik erabili duzu plazeboa?, zergatik lan egin duzu adingabeekin?...
- **Iradokizunak:** atal honetan, didaktikoagoa izan daiteke. Baimen informatuko dokumentua nola hobetu adierazi, etab.

Galdera horiei banan-banan erantzun behar die ikertzaileak, protokoloa edo txostena ez den beste dokumentu batean. Batzordeak eman dako informazioa eta aldaketak nahikotzat dituenean, ikertzaileak, behar izanez gero, eskatutako argibideen arabera eguneratu behar du protokoloa edo txostena, artxibatzeko.

5. Egindako beste galdera batzuk

5.1. Proiektuen jarraipena

(11) *Galdera:*

Batzordeak proiektu bat onartutakoan, hark egin behar dio jarraipena?

Bai, hala egin behar genuke. Ikerketako etika-batzordeen zereginetako bat da proiektuaren planteamendua eta gauzatzea zuzenak direla bermatzea, baina ez hainbeste emaitzen kasuan.

Hala eta guztiz ere, esperientzia gutxi daukagu arlo horretan, baita gizakiekin egiten dituzten ikerketen batzordeek ere, nahiz eta haiek izan tradizio handiena dutenak.

Hizlariaren iradokizuna:

Proiektu gatazkatsuen jarraipen selektiboa.

(izan ere, gaur egun bideraezina da proiektu guztien jarraipena egiten saiatzea)

- Zenbait irizpide objektibo proposatu behar genituzke, etikaren ikuspegitik oso ahulak izan daitezkeen ikerketak identifikatzeko, esaterako: arriskuaren eta onuraren arteko harreman zalantzarria edo muturrekoa daukatenak; nolabaiteko arriskua dutenak eta adingabeekin lan egiten dutenak; langileentzat edo partaideentzat segurtasun-arazoak dakartzatenak...
- Hautatzeko irizpide horiek proiektuaren hasierako ebaluazioa egitean aplikatu behar genituzke.
- Proiektu hautatuen kasuan, hura onartzean ohartaraziko genioke ikertzaileari auditoretza bat egin beharko duela balio etikoak gatazkan daudelako (gainditzea auditoretza egiteko prest egoteak baldintzatuko du). Jarraipen hori beharrezkotzat jotako aldizkako-tasunaz egingo genuke, partaide guztien babesa bermatzearen:

ikertzaileena, erakundearena, azterketan parte hartzen duten banakakoena eta proiektuaren gainerako partaideena (kolaboratzaileak...).

- Azkenik, balio etikoak urratzeko arrisku handiena zuten alderditzat aurreikusitakoak modu eraginkorrean ikuskatuko genituzke. Esaterako, baimen informatua eskatzeko benetako modua kontrolatzea arrisku/onura zalantzagarriko prozeduretan; adingabe helduen kasuetan haiei informazioa nola ematen zaien kontrolatzea... Batzordekide batek bisita bat edo batzuk egitea planifikatuta egin genezake.

5.2. Erakunde-erantzukizuna. Gatazken batzordea

(12) Galdera:

Plagioei, iruzur zientifikoei, akordio ez oso ortodoxoei eta beste gai batzuei tratu berezia eman behar diete gure batzordeek? Unibertsitateak estaldura eman diezaike halako ekintzei, esku hartu gabe? Zer-nolako erakunde-erantzukizuna du?

Hizlariaren ustetan, EZ. Ez dagokio batzordeari portaera mota horiek ebaluatzea. Batzordeak aholku orokorrak igor ditzake, baina plagioa edo iruzur zientifikoa jokabide pertsonalak dira, eta penalki zigor daitzake. Haren ustez, gai horiek *ad hoc* sortutako batzordeek landu behar lituzkete: **gatazka-batzorde** izenekoek. Haietan, etika-batzordeetako kideak egon litezke (baina ez horiek bakarrik), alderdi horietaz arduratzeko, baita ikerketako eta irakaskuntzako irregulartasun larriez arduratzeko ere.

Unibertsitateak ez luke inhibititu behar, delitua edo pertsonen eskubi-deen aurkako urraketa larria ekar dezaketen jokabide ageriak badirela jakinez gero. **Ez-egitezko edo zabarkeriazko erantzukizuna** dauka. Egunen batean gai horri heldu beharko diogu.

Unibertsitateak ez luke inhibititu behar, delitua edo pertsonen aurkako urraketa larria ekar dezaketen jokabide ageriak badirela jakinez gero. Ez-egitezko edo zabarkeriazko erantzukizuna dauka.

5.3. Batzordea ezagutaraztea

(13) *Galdera:*

Zenbait ikertzailek ez dute IIEB ezagutzen, eta beste batzuek ezagutzen dute, baina ikertu ahal izateko gainditu behar duten beste oztopo bat dela uste dute. Zer egin dezakegu batzordeen irudia aldatzeko?

Gure esku dago etorkizuneko irudia taxutzea. Hasieran mesfidantza izatea normala, espero izatekoa eta aurreikusgarria da. Iritzi hori hasieratik fase ohikoago batera iritsi arte egiten dugunaren arabera aldatuko dugu.

Pedagogia IIEBren eginkizun garrantzitsu bat da, batzordea unibertsitateko kideen artean ezagutzera emateko eta hasierako irudien ordez errealitatearekin bat datorrena zabaltzeko. Hona hemen mezu garrantzitsu bat: etika egitea balioetan oinarrituta heztea da, ez gainditu behar ez diren muga etikoak ezartzea bakarrik (hori ere garrantzitsua izan arren).

Ikertzaileak eta unibertsitateko kideak (lehenengo, ikasleak) prestatzeak erraztu egingo luke batzordeen lana oztopotzat hartu beharrean ikerketa-proiektuetako partaide guztientzako laguntzat hartzea.

Guztion onurarako lan egiten dugula ikusarazi behar diegu, ikerketako eta irakaskuntzako eguneroko jardunean laguntzeko lan egiten dugula. Esaterako, une honetan, IIEB ikertzaileentzako irtenbideak bilatzen saiatzen da:

- Oro har, arazoak konpontzen saiatzen da (ministerioetan, baime-nak eta izapideak, datuen babesa, arriskuen segurtasuna eta prebentzioa...), baina hori jakinarazi egin behar diegu unibertsitateko kideei.
- Banaka: ikertzaileari proiektuan gaizki aurkeztuta dagoena adierazten diogu, eta nola zuzendu dezakeen ere azaltzen diogu.

5.4. Prozeduren eta proiektuen publizitatea

(14) *Galdera:*

Publizitatea egin behar genieke batzordeak onartutako prozedurei? (Hemen, prozedurei buruz ari naiz, ez proiektuei buruz).

Erabilera estandarizatuko prozedurak izanez gero, argitara eman genitzake, beste ikertzaile batzuei haien erabilera errazteko eta prozedura hori batzordeak dagoeneko onartu duela eta arazorik gabe erabil daitekeela jakinarazteko.

Prozedura originalak izanez gero, ordea, haiek ikertzaileak berak argitaratu arte **itxaron behar genuke** (proiektuekin oro har gertatzen den moduan), egile-eskubideak errespetatzeko. Bileran aipatu dutenez, hori da nazioarteko aldizkari zientifikoetan argitaratzeko erabiltzen den irizpidea.

IIEBko zuzendariak eztabaida hori atzeratzea proposatu du; izan ere, une honetan prozeduren eta proiektuen arteko muga ezartzeko arazoak dauzkagu, eta zertaz ari garen hobeto zehaztu ezean, hobe izango genuke itxarotea.

5.5. Karguak berritzea

(15) *Galdera:*

Batzordeko karguak aldatzea vs. mantentzea

Ohiko eztabaida da. Karguak aldatu egin behar dira, erakundearen geldiera ekiditeko eta bilakaera nahiz ideia berrien sarrera faboratzeko. Nolanahi ere, aldaketaren ondorioz eskarmentu eta balio handiko pertsonak galtzeko arriskua daukagu.

Hizlaria nolabaiteko malgutasunaren aldekoa da; hau da, aldian behin kargu kopuru bat aldatuko dugu (normalean, heren bat bi/lau urtean behin), baina ez dugu eragotziko berriz hautatzea gaitasun handiko pertsoneri eusten ahalegintzeko. Lan honetan, nahikoa denbora behar dugu prestakuntza eta eskarmentua eskuratzeko, eta ez litzateke komenigarria izango pertsona batek ezagutza eta praktika gehien duenean uztea batzordea. Epe horien gainean gogoetatu behar genuke...

6. Laburpena/ondorioak

1. Dokumentua baliozkotzat jotzea

Proiektua batzordekideei bidali aurreko urrats bat ezar daiteke, idazkerako, ortografiako, gramatikako eta abarreko akats larriak dauzkaten proiektuak ikertzaileei bueltan emateko, zuzen ditzaten.

2. Ebaluatzaileak hautatzea

Espezializazioaren, lan-kargaren eta inpartzialtasunaren arabera haztatutako hautaketa-irizpide sekuentziala. Batzordekideek konfidentzialtasuneko eta inpartzialtasuneko hitzarmenak sinatzea komeni da.

3. Ebaluatzaileen eginkizuna

Ebaluatzaileen eginkizuna proiektuaren azterketa sakon bat egitea da (onena haiiek informazio osagarria jasotzea da); gero, batzordeari aurkezten diote, eta, bertan, eztabaidatu, eta erabakiak hartzen dituzte kide anitzen artean.

Hau da, benetan ebaluatzen duena batzordea da, hura da erabakitzeke ahalmena duen organoa.

4. Batzordearen gogoeta: zer eta nola ebaluatzen du?

4 a. *Alderdi metodologikoen ebaluazioa*

Zientifikoki edo metodologikoki akastuna den proiektu oro onartezina da etikoki.

- Etika-batzordeak alderdi hau balioetsi behar du: proiektua metodologikoki zuzena dela bermatu behar du. Horretarako, bi aukera dauzka:
 - Metodologia ebaluatzea.
 - Proiektuak erakunde aditu batek alderdi horren gainean egindako ebaluazioa gainditu duela bermatzea.
- Metodologian akats zakarrak egiten ez direla egiaztatzeko adinako sakontasunaz egin behar du ebaluazioa.
- Batzordeak mekanismo hauek dauzka ebaluatzeko:
 - Gutxienez kide aditu bat, eskuarki ebaluatu behar dituen gaietan.
 - Organo aholkulari espezifikoak, maiz samar agertzen diren gai zailtarako.
 - Aditu bat *ad hoc* ekartzeko aukera, proiektu bateko zailtasun zehatz baterako.

Jarraibide hau proposatu da: ebaluatzaileek zailtasunak edukiz gero proiektua ulertzeko edo interpretatzeko, batzordearen bileran ebaluazioa atzeratzea proposatu behar dute, adituen iritzia edo aholkularitza espezifikoa eskatu ahal izateko. Ikertzaileari jakinarazi egingo zaio ebaluazioa atzeratu egingo dela arrazoi hori dela-eta.

4 b. ***Ikertzailearen agerraldia batzordearen aurrean***

Ikertzaileak proiektua batzordearen aurrean aurkezteak eragozpen baino abantaila gehiago ditu: zalantzak argitzeko eta argibideak eskatzeko aukera eskaintzen du, gero errazago ebaluatzeko.

Bi faktore formal garrantzitsu daude:

- Une oro adeitsuak izan behar dugu ikertzailearekin.
- Inoiz ez dugu ikertzailearen aurrean eztabaidatu behar. Iritziak batzordekideen artean bakarrik eta ateak itxita elkartrukatuko ditugu.

5. Erabakiak hartzea. Gardentasuna, konfidentzialtasuna eta presioak

Eztabaidatzearen eta erabakiak hartzearen pisua kide anitzeko organoak hartzen du beregain, ez ebaluatzaileek edo lehendakariak.

Garrantzitsua da gardentasunez jardutea, faboritismoko edo partzialtasuneko susmoak ekiditeko, baita presioak saihesteko ere:

- Batzordekideek ezagunak izan behar dute (gardentasuna).
- Ebaluatzaileen izena informazio konfidentziala izango da, presioak ekiditeko.
- INren agerraldiak jardueren gardentasunari mesede egingo lioke.
- Konfidentzialtasun- eta inpartzialtasun-hitzarmenek presioak ekidingo lituzkete.

6. Ebaluazio-prozesuaren amaiera. Idatzizko txostena

Ikertzaileak jasotzen duen txostenak argia, ulergarria eta ordenatua behar du izan, eta behar adina xehetasun izan behar ditu, proiektuaren eragozpenak ezagutzeko. Gutxienez, bi atal eduki behar ditu: argibideak eta iradokizunak.

7. Beste gai batzuk

7.1. *Proiektuen jarraipena*

Batzordeak bermatu egin behar du proiektua zuzena dela planteamenduari eta gauzatzeari dagokionez. Jarraipena egin behar du.

Gaur egun bideraezina da proiektu guztien jarraipena egitea, baina proiektu gatazkatsuen jarraipen selektiboa proposa daiteke, etikaren ikuspegitik oso ahulak izan daitezkeen proiektuak aztertze; ikertzaileari proiektua onartzean bertan jakinaraziko genioke auditoretza bat gainditi beharko duela.

7.2. Erakunde-erantzukizuna. Gatazken batzordea

Ez dagokio batzordeari plagioak eta iruzur zientifikoak ebaluatzea, baina horretarako gatazken batzordeak sor daitezke; haietan, etika-batzordeko kideek parte har lezakete.

7.3. Batzordea ezagutaraztea

Pedagogia IIEBren eginkizun garrantzitsu bat da, batzordeak unibertsitateko kideen artean ezagutzera emateko eta haiei begirako hasierako mesfidantzaren ordeztarrealitatearekin bat datorren irudia zabaltzeko.

7.4. Prozeduren eta proiektuen publikitatea

Batzordeak onartutako erabilera estandarizatuko prozedurak argitara eman genitzake, beste ikertzaile batzuei haien erabilera errazteko. Prozedura originaletan eta oro har proiektuetan, ordea, egile-eskubideak errespetatu behar ditugu, eta ikertzaileak berak argitaratu arte itxaron behar dugu.

7.5. Karguak berritzea

Ikerketaren etikaren arloan, nahikoa denbora behar izaten dugu prestakuntza eta eskarmentua eskuratzeko, eta, agian, aztertu egin beharko genuke karguak berritzeko epea, pertsona batek batzordea ezagutza eta eskarmentu gehien duenean utz dezan ekiditeko.